


Argien eraginez... etorkizun iluna ipurtargientzat

Migel Mari Elosegi*



Ipurtargiak iluntzean jartzen dira martxan. Argazkian emea.



FITXA TEKNIKOA

Ipurtargi arrunta

Espezia: *Lampyris noctiluca*
Familia: lanpiridoak
Ordena: koleopteroak
Klasea: hexapodoak

Egia esan, txiki-txikitatik harritu eta liluratu ninduen gauean argitxo hura pizten zuten animaliak. Sentimendu hau ordea, duela bost bat urte Iratin bizitutako gertakizunaren ondorioz nabarmenki areagotu zitzaidan. Eguna mendian pasa ondoren, iluntze epel hartan basoko irekigune batean afaria prestatzeari ekin genion. Zakur gosetuen gisa irakiten ari zen makarroi-eltzekadari begira geundelarik, zomorro batzuk gure kopetar-

gien inguruan bueltaka hasi ziren. Intsektuak buruan eta bereziki kopetargiaren erdian gelditzen zitzaizkigun eta tarteka, bakarren bat makarroi-tara erori, edota butanozko sukaldetxoaren galdetan kixkaltzen zen. Harrituta geunden gu eta argi guztiak itzali genituen arte ez gintuzten bakean utzi. Zeintzuk izan zitezkeen inork gonbidatu gabe etorritako zomorro haiek? Bai horixe irakurle, ipurtargiak ziren!

Ugalkidea erakartzeko animaliek dituzten sistema ezberdinen artean ipurtargiena bitxienetakoa dugu, izan ere, koleoptero hauek argia erabiltzen dute zeregin honetarako. Honela uler daiteke noski, Iratiko gau hartako ipurtargien eromena: arrak ugalkidearen bila jo eta ke zebiltzan eta, basoaren erdian guk egindako argiek emeek egin ohi duten argiarekin nahasten zituzten nonbait eta "sutan" etortzen ziren guregana. Nahaste hauek alde batera utzita ordea, argia, komunikatzeko tresna

ona izan daiteke, distantzia luzetara, abiadura izugarrian, eta muskuluek inolako lanik egin gabe egin daitekeelako.

Has gaitezen baina ornogabe hauen kokapen taxonomikoarekin. Ipurtargiak, hexapodoak edo intsektuak ditugu. Hauen barruan, koleopteroen ordenean sailkatu daude, eta zehazki, lanpiridoen familian. Familia honek, 1.700 espezie inguru ditu munduan zehar, eta Euskal Herrian, espezie bakarra dugu, ipurtargi arrunta (*Lampyris noctiluca*), alegia. Arrak eta emeak itxura desberdina dute oso. Arrak, kakalardo itxura-koak dira, nolabait esatearren, eta hegodunak. 10-12 mm-ko luzera dute eta koleoptero tipikoek bezala, aurreko hegoak (elitroak), esklerifikatuta edo gogortuta dituzte, eta hauen azpian, hego mintzakara finak. Kolorez arreak dira. Emeak berriz, hegorik gabekoak dira, eta larben antza handia dute. 15-20 mm-ko luzera dute, eta kolore arre ilunekoak eta zapal xamarrek dira.

Intsektu bitxi hauek, belar-soro, bide-bazter, hesi, baso inguru eta sastrakadietan bizi dira eta helduak, ekaina eta iraila bitartean aurki daitezke. Gautarrak, normalki ilundu

Ipurtargien larbak bare eta marraskiloaz elikatzen dira.



M.M. Elosegi



A. Elozegi



Emeak, abdomenaren puntan argia "pizten" du arrak erakartzeko.

ondoren eta gehienetan, emeek egindako argia ikusita aurkituko ditugu.

Elikadurari dagokionez, larbak molusku-ehiztari amorratuak ditugu, eta marraskilo eta bareetaz elikatu ohi dira. Ehizarako eta jateko, igitai-itxurako masaila zorrotzak erabiltzen dituzte eta, ehizakia hozkatzen dutenean, jariakin ilun bat barnertzen diote. Substantzia hau ez da listu-guruinek jariatutakoa, izan ere, halako guruinik ez baitute. Aitzitik, jariakina heste inguruetan dauden guruin azidodunetan sortzen dela dirudi eta honen eraginez, moluskuaren ehunak puskatu eta disolbatzea lortzen dute. Ipurtargiaren larbek beraz, neurri handi batean kanpo-liseriketa egiten dute, eta gero, jariakinari esker prestatuak bazkaria zurrupatu. Helduek bestalde, ez dute batere edo ia ezer ere jaten eta hauen eginkizun bakarra ugalketa burutzea da.

Zalantzarik gabe, ipurtargien ezaugarri bereziena argia "piztearena" da. Ipurtargi emeak, abdomenaren azken hiru segmentuetan milaka fotozito ditu eta hauei esker, bioluminiszentzia edo bestela esanda, berorik gabeko argia egin dezake. Argi famatua erreazio kimikoen ondorioz sortzen da eta zehazki, erreazio honen bidez: luziferina izeneko substantzia erreduzitua, luziferasa entzima katalizatzailearen bidez aktibatzen da eta oxigenoarekin erreazio-natuz, argia sortzen da. Aipatu beharrezkoa da, ipurtargi-espezia asko daudela eskualde beroetan eta argia piztea ez dela nahikoa ugalkidea

topatzeko. Eskualdeotan, espezie bakoitzak bere argi-seinale berezia du, espezie ezberdinak nahasi ez daitezten.

Emeak beraz, lurretik, belar-tarte edo landareren batetik, abdomenan kolore berdeskako fosforeszentzia egiten du zerurantz, ar hegalaria erakarri nahiean. Arrak emea aurkitzen duenean parekatu egiten dira eta ondoren erruketa gertatzen da. Arrautzetatik, emearen antza duten larbak jaiotzen dira, eta metamorfosia burututakoan helduen itxura hartuko dute.

Animalia bitxi hau Europako hegoaldean bizi da, eta arrunta zen Euskal Herriko bazter gehienetan. Nola... zen? Ez al da bada arrunta gaur egun? Antza denez, animalia hau ez da gaur

Zalantzarik gabe, irtenbide zaileko arazoa da hau. Azken 100 urtetan Euskal Herria zein mundu osoko beste lurralde gehien itxura guztiz aldatu da. Gauari dagokionean, duela hamarkada gutxi batzuk, kinke, beheko su, edo kandelaren bat ezik inongo argi artifizialik ez zegoenean, ipurtargien sistema arras egokia zen bikotea topatzeko. Azken urteotako teknologiaren garapenak ordea, gero eta argi gehiago egotea ekarri du, eta ustekabeen, espezie batzuentzat

M.M. Elozegi



Ipurtargi arra eta emea. Arra ezkerrekoa da, hegoduna, eskuinekoa emea.

egun garai batean bezain ugaria. Hainbat adituen ustetan atzerakada handi xamarra pairatzen ari da azken urteotan, eta egia esan, hauen hipotesiak zentzuzkoa dirudi. Guri Iratiko basoan gertatu zitzaigun bezala, badi-rudi beste leku askotan ere ipurtargi arrak gaueko argien atzetik abiatzen direla emeen esperantzan. Baina hara non ipurtargiek, euren eme kuttunen orde, kaleak, etxeak, kotxeak, kope-targiak... eta abarrek argiekin egiten dutela topo. Jakina, era honetan ugalketa burutu ahal izateko bikotea aurkitzea zaila gertatzen zaie oso eta Irati bezalako ingurune basati xamarretan baino ez dira ipurtargiak behar bezala ugalduko.

hau kaltegarri gerta daitekeela ohar-tu gara. Gauak oraindik ilun diren tokietako populazioak mantenduz, espero dezagun ipurtargi guztiak ez galtzea behintzat! Eta bukatzeko, irakurle, baliteke une honetantxe zure etxeko argiren bat alfer-alferrrik piztuta egotea eta zergatik mantendu horrela? Itzaliko bazenu, beste onura askoren artean, bikote-bila dabilen ipurtargiren bati mesede galanta egin zeniezaiok. Harrigarria, ezta?



* Biologoa

